TOKIKO ESTRATEGIA BURUJABEAN TURISMOAREN PAPERA EZAGUTU ETA KOKATZEKO

MARKO TEORIKOAREN DEFINIZIOA

Hernaniko Udala



bizibiziki

Aurkibidea:

1. **Sarrera (3. or.)**
2. **Lanaren helburuak (3. or.)**
3. **Turismoa vs Burujabetza estrategia (4. or.)**
    a. Egungo turismo errealitatea ulertzeko faktoreak.
    b. Hernaniko burujabe eta oinarrizko faktoreak.
4. **Hernani. Errealitate turistikoaren klabeak (10. or.)**
5. **Trantsizioa marrazten (12. or.)**
6. **Eta orain zer? (19. or.)**
7. **Burujabetzaren bidean, nazioartean aipagarriak izan daitezkeen zenbait alternatiba. (23. or.)**

1. Sarrera:

Egungo gizarte ereduak, gizarteko zenbait eredu tradizionalen agortzea agerian utzi du eta testuinguru horretan kokatzen da turismoa ere. Maxifikazio egoerak, zerbitzu eskasiak edota kalitate eta prezioaren gero eta oreka falta handiagoak horren adibide garbiak dira, esate baterako. Errealitate honek, beraz, gero eta gehio zaildu du beharrezkoa ez den kontsumo baten justifikazioa eta sistema neoliberal baten hazkuntza obsesiboaren azalaraztea ekarri du.

Gizartearen egoera koiunturalak eta Hernaniko Udalak martxan jarritako Burujabetza Estrategiak orain arte turismoaren errealitateari lotutako lan-moldeak egokitu eta berpentsatzeko beharra zehaztu du. Beraz, lan honen oinarrian *Hernani Burujabe, Burujabetzara Trantsizio Prozesua* dokumentua kokatuko da eta bertan jasotzen diren printzipioak izango ditu oinarri. Honi, turismoari lotutako azken joera turistikoak, Turismo soziala, neolokalismoa edota hazkuntzaren kontrako joerak txertatu zaizkio.

Kontuan hartu behar dugu bestalde turismoaren inguruko faktore eta harremanak mota eta modu askotakoak izan daitekeela. Modu honetan, lan honen baitan jaso daitekeen Turismo Burujabetzako edozein definizio, Hernaniko lurraldean eragin ahal dioten faktoreetan zehaztu da, jomugatik haragoko turismoaren baitan zehaztu daitezkeen faktoreak baztertuz.

2. Lanaren helburuak:

Lanaren baitan ondorengo helburuak jasotzen dira:

1. Hernaniko burujabetza prozesuan eta berau egikaritzeko marko teorikoan turismoak duen papera zehaztea.
2. Egungo eredua eta Hernaniko Udalak dituen herri mailako helburuetara iristeko turismoaren testuinguruan egungo egoeratik izan beharreko transizio bidea irudikatzea.

3. Turismoa vs Burujabetza estrategia

- **Egungo turismo errealitatea ulertzeko faktoreak.**

Burujabetza prozesuan turismoak izan dezakeen papera zehazteko garrantzitsua da egungo zenbait turismo kontzepturen inguruko irakurketa burutzea, ondoren burujabetza estrategian nola kokatzen den ezagutzeko eta errealitatean parte diren elementu eta agenteen papera zein eta nolakoa izan daitekeen marrazteko. Termino hauen analisirako, bestalde, kontuan hartu behar da turismoa sistema kapitalistaren adierazle gordinenetakoa dela, eta beraz, ekonomia kontsumista eta klasistaren beharrei erantzuteko bideratua dagoela egun. Zenbait adituren arabehera gure eguneroko egoera eta ongizatearekin lotutako zeinbait indikatzailerekin lotua dagoen jarduera bat dela. Azken urteetan gainera programa esplotatzaile kolaboratibo handienak sortzeko gaitasuna izan duela ikusi dugu.

Hala eta guztiz ere, jarduera turistikoaren eragin larrienak antzemateko gaitasunak, turismo eredu berriei bide eman diela ikusi dugu, maila mugatuan eta hauen eragin esparru konkretuetan eman direlarik.

Egungo turismo-sisteman adierazle diren kontzepturen inguruko irakurketa burutzen da hurrengo lerroetan.



<table>
<tr><th colspan="3">Turismo-sistema edo turismo-sarea</th></tr>
<tr><th colspan="2">Elementuak</th><th>Ohiko esanahia</th></tr>
<tr><td colspan="3">Turismoa</td></tr>
<tr><td colspan="3">Turismoaren inguruko definizio ezberdinak topatu ditzakegu gaur egun.
- El turismo comprende las actividades de las personas que viajan y permanecen en lugares distintos al de su entorno habitual, por no más de un año consecutivo por ocio, negocios y otros fines no relacionados con el ejercicio de una actividad remunerada en el lugar visitado." (World Organización de Turismo)
- El movimiento temporal de personas a destinos fuera de sus lugares habituales de trabajo y residencia, las actividades realizadas durante su estancia en esos destinos, y las instalaciones creadas para atender a sus necesidades (Mathieson, A. and Wall, G. 1982. Tourism: Economic, Physical and Social Impacts. New York: Longman House)
- "El turismo es un conjunto de actividades, servicios e industrias que ofrecen una experiencia de viaje, incluyendo transporte, alojamiento, alimentación y establecimientos de comida y bebida, pequeño comercio, empresas de entretenimiento, instalaciones para la realización de las actividades relacionadas y otros servicios de restauración previstos para las personas o grupos que viajan fuera de casa . (Universidad del Norte de Arizona, Parques y Recreación de Gestión de Introducción -. Lección Online http://www.prm.nau.edu/prm300.)
- "La suma de los fenómenos y relaciones que surgen de la interacción de los turistas, proveedores comerciales, los gobiernos anfitriones y las comunidades." (McIntosh, R.W. & Goeldner, C.R. (1986). Tourism: Principles, Practices and Philosophies, 5th ed. John Wiley & Sons, New York).

Horrenbestez, lehenengo definizioak turismo jardueraren subjetuan jartzen zuten arreta, denborarekin motibazio kontzeptua sartu eta, plazerra bidaiaren motibazio bezala txertatuaz; “turismoa, plazerra edo arrazoi komertzialen bidaia-multzoa litzateke eta ohiko bizilekutik denbora tarte batean aldentzea dakar”.

Ageriko definizioetatik ondoriozta daitekeenez, bidaia, lekualdatzea eta aisialdia fenomeno turistikoaren inguruan nahasten diren terminoak dira eta, beraz, turismo-fenomenoaren berezko elementuak izan daitezke.</td></tr>
<tr><td></td><td>Turista/ Txangozalea</td><td>Kontzeptuaren hasierako esanahietan, turista plazerragatik bidaiatzen duen pertsona bezala zehatzen zen, baina kontzeptua bera bidai mota eta bidai arrazoi ezberdinetara hedatu da egun.</td></tr>
</table>

Turismo sistema ulertzeko aldagaiak		Zehaztekoa da ere, turistaren kontzeptuan gaua pasatzearen aldagaia hartzen dela kontuan, hau da, turista bisita egiten duen herrialdeko ostatu pribatu zein publiko batean gutxienez gaua pasatzen duen pertsona litzateke (OMT). Txangozalea, aldiz, ez.
	Agente turistikoak	Arestian burututako definizioetan bidaiaren arrazoiak edozein delarik ere, kasurik gehienetan turismo agente parte hartzaileak berdinak izango dira: garraio enpresak, bidai agentziak edota ostatuak esaterako. Hala nola, turismoa, agente turistikoek eta jarduerarekin zuzenean elkartzen diren enpresek osatzen dute: ostatuak eta jatetxeak; garraio enpresak; bidai agentzia; informazio bulegoak eta interpretazio zentroak; kirol, jolas, aisialdi eta kultur ekipamenduak. Oinarrizkoa: Alojamenduak, ostalaritza-zerbitzuak, turismo agentziak, zerbitzu turistikoak eskaintzen dituzten enpresak, etab. Osagarriak: garraio-zerbitzuak, museoak, aisialdirako azpiegiturak, supermerkatuak, merkataritza-eskaintza, banketxeak, etab.
	Baliabideak	Bisitarien interesa pizten dituzten eta ezaugarri ukigarriak eta ukiezinak dituzten ondareak dira (naturalak, kulturalak, gastronomikoak, etab.). Leku edo zonalde bat bisitatzeko grina sortzen dituzte, bakarrik edota beste batzuekin batera konbinatuz.
	Azpiegiturak	Oro har, jarduera ekonomiko eta gizartearen garapenerako oinarrizko elementuak edo hornidura-sarea. Turismoaren jarduera garatzeko eta gauzatzeko erabili daitezkeen azpiegiturak dira. Bisitariak lurraldean barrena mugitzeko beharrezko komunikazio-bideak identifikatu daitezke, baita bestelako jarduerak gauzatzeko oinarrizkoak diren ur/elektrizitate/gas hornidura sareak, telekomunikazio instalakuntzak, osasun zerbitzuak...

	Bertako komunitatea	Ehun komunitarioa, herritarrak, jarduera turistikoa gauzatzen den lurraldeko agente hartzaileak dira. (Egun, eragin turistikoaren hartzaile zuzenak dira, baina baita turismoaren partaide aktiboak ere).
	Superestrukturak	Turismo jardueraren planifikazioaz, kudeaketaz eta honen arauketaz arduratzen diren instituzioei deritze (herri, eskualde, estatu nahiz mundu mailakoak). Honekin batera, sektoreko enpresen ordezkaritza burutzen duten eta hauen interesak bermatzeko lan egiten duten erakunde pribatuak ere kategoria honen barruan sartzen dira (merkataritza-ganberak, esate baterako).
	Produktu turistikoak	Elementu material eta inmaterialen konbinazioa da; hala nola, baliabide natural, kultural eta gizakiak sortutakoak, baita turismo elementu jakin baten inguruko erakargarritasun, zerbitzu eta instalazioak ere. Honek, jomuga turistiko baten marketing planaren funtsa adierazi eta turismo esperinetzia integral bat sortzen duena. Banaketa kanalen bitartez merkaturatzen da prezio zehatz batekin (OMT).

Definizio hauen baitan egungo turismo errealitatea turista eta hauen eskaeretan oinarritzen da, berau osatzen duten industriarekin batera (produktu eta zerbitzuak).

- **Hernaniko burujabetza estrategiaren oinarrizko faktoreak:**

Tokiko Garapen Burujabea, lurralde zehatz batek dituen behar eta desioak asetzeko estrategia bat da, eta horretarako, lurraldea osatzen duten dimentsioak kontrol sozialaren pean ezartzen dira.

Kasu, "*Hernani Burujabeaz ari garenean, hernaniar guztien beharrak asebetetzeko sistema sozio-ekonomiko eta politiko berritu baterantz hurbiltzeaz ari gara. Egoera berri bat, zeinetan bai indibidualki, zein kolektiboki dauzkagun behar materialak asebetetzeko beharrezkoak zaizkigun baliabide, jakintza eta prozesuen inguruko jabetza, erabakimena, eta ekiteko gaitasuna hernaniar guztien eskuetan egotea bilatuko den etengabe.*"

Estrategia honen baitan, oinarrizko 5 faktore identifikatzen dira, eta hauek izango dira burujabetza turistikoaren marko berria diseinatzeko ildoak.

BURUJABETZAREN OINARRIZKO FAKTOREAK	
Esanahia	**Nola erantzuten dio turismoak egun?**
Lurraldea	
Burujabetzak lurraldea ulertzeko modu bat bezala ulertzen da, modu berriak ahalbidetzeko gune espazial konkretua: Hernani.	Turismoari dagokionean, lurraldeak jomuga turistikoari egiten dio erreferentzia eta honen mugatze prozesua zail suertatzen da agente ezberdinen parte hartzea dela eta, edota hauen eragin-esparrua dela eta.
Beharrak asetzeko sistema	
Lurralde batek dituen behar eta desioak asetzeko estrategia bezala kokatzen da. Eta horretarako, lurraldea osatzen duten dimentsioak kontrol sozialaren pean ezarriko direla zehazten da.	Turismoak hautazko kontsumo ez beharrezko bati erantzuten dio, hau da, ez da beharrezkoa gizartearen biziraun eta ongizatean eragiteko. Ezinbestekoa izango da, beraz, turismo ereduak Hernaniko kasuan zein beharrei erantzutea nahiko genukeen zehaztea.
Autoeraldaketa	
Norbanakoen inplikazioa esparruetan eragiteko estrategia da, beti ere kolektiboak diren beharretan oinarrituak. Eguneroko erabakietan eragiteko gaitasuna izan dezaken estrategia da. Ehun komunitarioan kokatzen da.	Turismo errealitatearen baitan bisitaria litzateke batez ere subjektu nagusia, erdigunean kokatzen den elementua, herritarren paper mugatuarekin. Bisitarien beharrei erantzuteko jorratutako eskaintza osatzen da orohar, bertako komunitateareb erabakitzeko gaitasuna apala izanik.
Baliabide eta prozesuen kontrola	
Erabakitzeko gaitasuna indibiduan zein kolektiboa ahalbidetzen da eta horretarako	Turismoaren esparruan baliabide eta produktuen kontrola herritarren

parte hartzean oinarritutako estrukturak zehazten dira.	eskuetatik kanpo kokatzen dela esan dezakegu, batez ere ondare kultural herrikoi eta baliabide naturalen kontrola ez da ahalbidetzen. Prozesuei dagokionean, erakunde publiko eta ehun ekonomiko ez antolatuari dagokio.
Gizarte kohesioa/harremanak	
Agente ezberdinen harreman-sare demokratiko eta lidergotza partekatuan oinarritua izatea proposatzen da.	Turismoaren esparruan (Hernanin) ez da harreman egiturarik ematen gaur egun. Harreman puntualak bideratzen dira egoera konkretuetan.

Bi errealitateen inguruko abiapuntu estrategiko antagonikoetan kokatzen garela ikus dezakegu eta, beraz, ezinbestekoa dela burujabetza estrategia baterako aldaketa esparruak zehaztea.

- ☐ ***Nola definitu litzateke turismoa, burujabetza prozesuaren baitan?***
- ☐ ***Nola ulertuko da lurraldea turismo, burujabetza prozesuaren baitan?***
- ☐ ***Zein beharrei erantzungo die "turismo burujabetzak"?***
- ☐ ***Zein izango litzateke turistaren papera eta nola kokatzen dira herritarrak prozesuaren baitan?***
- ☐ ***Nola definitu ahal izango da erabakitzeko gaitasun kolektiboa? Zein izango da parte hartze estrukturaren papera?***
- ☐ ***Zein paper izan behar dute agente turistikoek (ehun ekonomikoa eta bestelako ekipamenduak) estrategiaren baitan?***

4. Hernani. Errealitate turistikoaren klabeak:

Turismo jarduerak Hernaniko burujabetza proiektuan izan dezakeen papera definitu ahal izateko, abiapuntua zein den jakitea ezinbestekoa da, horretarako, gaur egungo turismo errealitatearen klabeak zeintzuk diren definitzen dira hurrengo lerroetan.

- Hernaniko kudeaketa turistikoaren ardura eragile publikoena da gaur egun. Udaleko turismo saila da jomuga turistikoa dinamizatzearen arduraduna eta udal mailan Tokiko Garapen Batzordea da gai turistikoak lantzeko gunea (hala ere gai transbertsaletan ere turismo gaiak lantzen dira, merkataritza edota txotx mahaiarekin esaterako).

- Sektore turistiko oso atomizatua: Parte-hartze foroen falta sumatzen da, kudeaketa publiko-pribatu baterako eredu falta eta estrategia turistiko bateratu baten falta.

- Eskualde mailako estrategia falta: Hernani egun 4 jomuga turistikoren baitan kokatzen da; Sagardo Lurra (Donostialdea turismo), Gipuzkoa Turismoa, Urumea Arnastu eta Hernani bera. Bere papaeraren definizioa falta da.

- Turismo jarduerari lotutako errealitatea txotx denboraldiari zuzendutako errealitatea da bereziki, eta honek herritarrengan konnotazio negatiboa sortzen du.


- Turismo kulturalean oinarritutako eskaintza da batez ere Hernanik eskaintzen duena. Balibide natural eta kulturalak dira aipagarrienak.

- Turismo errealitateari lotutako sare atomizatua du: alojamenduak (12), etxebizitza turistikoak (7), jatetxeak (12), sagardotegiak (12), turismo enpresak (5).

- Bisitariaren inguruko perzepzio psikologiko eskasa dago.

- Herriko gainontzeko eragileak mapa turistikotik kanpo daude.

Irudia (hurrengo orria): Hernaniko errealitate turistikoa gaur egun irudikapen eskema.


HERNANIKO ERREALITATE TURISTIKOA GAUR EGUN
Helmuga turistikoa
AGENTE TURISTIKOAK
ZERBITZU OSAGARRIAK
Garraio zerbitzuak
Museoak
Aisialdirako azpiegiturak
Merkataritza eskaintza
Banketxeak, osasun zerbitzuak...
Eskaria
Eskaintza
Ostalaritza-zerbitzuak
Turismo agentziak
Turismo enpresak
BALIABIDEAK
Naturalak
Historiko artistikoak
Kulturalak
PRODUKTU TURISTIKOAK
AZPIEGITURAK
Baliabideen kontsumoa
Produktuen kontsumoa
Merkaturatzea
Eskaintza sorrera
Kontrola- Arautu - Finantzaketa
Kudeaketa Finantzaketa
SUPERESTRUKTURAK Hernaniko Udala
SUPERESTRUKTURAK Eusko Jaurlaritza-Basquetour Gipuzkoako Foru Aldundia Buruntzaldea
Kontrola- Arautu Promozioa-Merkaturatzea Finantzaketa
TURISTA TXANGOZALEA
BERTAKO KOMUNITATEA
LURRALDEA
Kanpo erakundeen menpe
BEHARRAK ASETZEKO SISTEMA
Bisitariaren beharrak asetzeko sistema
AUTOERALDAKETA
Bisitarien ikuspuntu mugatuan
GIZARTE KOHESIOA ETA HARREMANAK
Harreman deserosoak eta ez antolatuak
BALIABIDE ETA PROZESUEN KONTROLA
Kontrola herritarrengandik kanpo. Prozesuetan ehun ekonomikoa eta erakunde publikoen antolaketa eza.
TURISMO BURUJABETZA ESTRATEGIA

5. Transizioa marrazten:

Atal honen baitan, turismoaren egungo logikak eta Hernaniko Tokiko Burujabetza estrategia izan ditzateken indikatzaile eta frikzio puntuak zehaztea da asmoa, aurrera begirako alternatiba teorikorako aukerak non kokatu daitezkeen erantzuteko.

“Burujabetzaz ariko garenean herrialde, herri eta komunitateek erabaki bezala garatzeko beharrezkoak dituzten baliabide, jakintza eta prozesuen inguruko jabetza, erabakimena eta ekiteko gaitasuna edukitzeaz ariko gara. Halabeharrez kolektiboak diren bizitzak nola antolatu, inguru naturalarekin nola harremandu eta behar eta desira sozialak modu duin batean asetzeko baliabide eta prozesuen kontrola du izate baldintza burujabetzak. Era berean, lan prozesuetatik sortzen den aberastasunaren gaineko kontrola eta honen banaketa berdinzalea du oinarri.” (Iturria: Hernani Burujabe - Burujabetzara trantsizio prozesua)

Modu honetan, Hernaniko Turismo Burujabetza prozesuak ere ondorengo puntuei erantzuteko beharra izango du:

1. Komunitateak baliabideen kontrola berreskuratzeko beharra egongo da.
2. Inguruarekin harremantzeko medu berriak mahai gaineratu behar ditu.
3. Komunitatearen behar eta desira sozialaren parte izan behar du.
4. Aberastasun edo ergin komunitarien gaineko hausnarketa azaleratu beharko du.

Honetarako ezinbestekoa da orain arteko turismo errealitatearen ideia eta kontzeptuen birplanteamendua burutzea, hazkuntza eta zenbaki kuantitatiboetatik haratago, eredu sozialagoak mahaigaineratzeko.



Errealitate turistikoa hazkuntza terminoetatik at zehazteko beharra egongo da.



Turismoak komunitate bezala dauden beharrei erantzuteko betebeharra izango du lehen maila batean, eta ez horrenbeste bisitari eta bisitariei

erantzuten dioten enpresei. Testuinguru honetan, turismoak erantzun beharreko, ongizateko beharra zalantzan jartzeko elementua litzateke eta beraz "petalo" bezala garatzeko zailtasunak zehazten ditu.

Turismoa hernaniarren ongizatearen terminoetan kokatzeko beharra izango du, eta beraz, bidaia edo aisiako bezalako kontzeptuen formulazio berria.


Turismoak mugikortasunaren gaineko berplanteamendu bat eskatzen du beti ere ekitate eta justizia sozialean oinarritua.

Turismoak ekonomia eredu berrietan txertatzeko beharra du orain artekoak baztertuz.

Bisitarien eragina eta inplikazioa zehaztuko dituen berplanteamendu bat definitu beharko da, beti ere hartu-ematean oinarrituko den eredu batean.

Erabakitzeko guneak identifikatu, bilatu eta antolatzeko beharra dago, herritarren ganako erabaki-guneak identifikatu eta bisitariaren beharrak bigarren mailako elementu bihurtuaz.

Irudia (hurrengo orria): Hernaniko turismo burujabeta estrategiaren oinarrizko kontzeptuen irudikapen eskema.


HERNANI TURISMO BURUJABETZA ESTRATEGIA
ONDAREA BALIABIDEAK
Naturalak
Kulturalak
Lurralde identitatea eta bertako ondareari lotutako atxikimendua. Komunitateari lotutako ezaugarriak.
AZPIEGITURAK
Herritarren mesedetara lehendabizi
PRODUKTU TURISTIKOAK
Eskaintza burujabea sustatu eta antolatu
Susperend-promozioa
Finantzaketa-Bitartekoak
Parte hartze mekanismoak
- Marketing estrategia
- Komunitatearenganako zerbitzu pentsamendua
SUPERESTRUKTURAK HERNANIKO UDALA
SUPERESTRUKTURAK
Euskо Jaurlaritza-Basquetour
Gipuzkoako Foru Aldundia
Buruntzaldea
GIZARTE KOHESIOA ETA HARREMANAK
Harreman demokratikoa eta lidergo partekatua.
Ondarearekin harremantzeko eta sarean antolatzeko moduak.
BALIABIDE ETA PROZESUEN KONTROLA
Parte hartze mekanismoak. Prozesuetan ehun ekonomikoa eta erakunde publikoen antolaketa beharra.
BEHARRAK ASETZEKO SISTEMA
Behar sozial eta kolektiboak. Komunitatearen ongizatea.
AUTOERALDAKETA
Ehun komunitarioan kokatzen da eta gonbidatua (bisitaria) inplikatzen du.
LURRALDEA
Ikuspegi soziala, ekonomikoa eta kulturala
BERTAKO KOMUNITATEA
Behar kolektiboak asetu
EHUN EKONOMIKOA AGENTE TURISTIKOAK
ZERBITZU OSAGARRIAK
Garraio zerbitzuak, Museoak
Aisialdirako azpiegiturak
Merkataritza eskaintza
Banketxeak, osasun zerbitzuak...
ONARRIZKO ZERBITZUAK
SEKTORE PRIBATUA:
Alojamenduak
Ostalaritza-zerbitzuak
Turismo agentziak
Turismo enpresak
Kontratu sozialak bilatu
Eskaintza turistikoa
Eskaintza turistikoa
PRODUKTU TURISTIKOAK
GONBIDATUA
ALIATUA
TURISTA TXANGOZALEA
Bisitarien kudeaketa (gaur egungo errealitateaburujabetza planteamenduetan artikulatzea)
Pentsamendu kontsumista batetik, lurraldean gonbidatu izatera igaro.

1. Lurraldea

Arestian aipatu bezala, proposamen honek herri barruko mugetan aplikatu litzakeen markoa definitzera dator. Hala ere, kontuan hartu beharko da, Hernani lau jomuga turistikoetan kokatzen dela egun eta, beraz, esparru horietan ere burujabetza ildoak lantzea edota proposatzea ezinbestekoa izango dela. Zentzu honetan beste eragile turistikoen aurrean baliabide eta ondarearen gaineko kontrola egiaztatu beharko du.

Hernani egun lau jomuga turistikoren baitan kokatzen dela esan dezakegu; Sagardo Lurra (Donostialdea turismo), Gipuzkoa Turismoa, Urumea Arnastu eta Hernani bera.



Egoera honek, jomuga turistikoa eremu geografiko batetik haratagoko errealitate bezala ulertzea ezinbestekoa da, hala nola, eremu politiko-administratibo baten klabeetan kokatu beharko litzateke. Hortaz, lurraldeari lotutako osagaiak baliatzen dira eta horietan, hiru mailatan ematen diren eta elkar-erlazionatuak dauden garapen-paradigmak identifikatu daitezke:

- Tokiko garapena edo endogenoa: tokiko estruktura eta dinamiketatik garatzen dena. Ekonomian, giza-baliabideetan, alor sozio-kulturaletan zein politiko-administratiboan eta ingurumenean landu behar den aldaketarako modeloa litzateke.
- Garapen integratua: lurraldearen garapen trasbertsala eragiten du eta sektore guztiek eta agente sozioekonomikoek parte hartzen dutena.

- Garapen iraunkorra: ekologikoki iraunkorra, ekonomikoki bideragarria eta sozialki justua den garapena.

Planteamendu honetatik, bi lan-lerro planteatzen dira:

1- Herri mailan definitzen den estrategia eta ekintzetan indarra jarri beharko da. Tokiko estruktura ezberdinen arteko koordinaketa.
2- Beste errealitate turistikoetan, Hernaniren papera birplanteatu beharko da.

2. Beharrak asetzeko sistema

Turismoak hautazko kontsumo ez beharrezko bati erantzuten dio, hau da, ez da beharrezkoa gizartearen biziraun eta ongizatean eragiteko. Ezinbestekoa izango da, beraz, turismo ereduak Hernaniko kasuan zein beharrei erantzutea nahiko genukeen zehaztea.

Lan honen baitako ideia abstraktuena izan daiteke seguraski. Turismoari egokitutako "beharra" sistema ekonomiko eta langile borrokatik eratorritako eskubideetan zehazten da, zehazki 1948an Nazio Batuen Erakundeak, Giza Eskubideen Adierazpenean zehaztu zuen bidaiatzeko eskubideen zehatapenarekin: *"Toda persona tiene derecho a salir de cualquier país, incluido el suyo propio, y regresar a su país" (...) "toda persona tiene derecho al descanso y al esparcimiento, incluida la limitación razonable de la jornada laboral y vacaciones periódicas pagadas"*. Zentzu honetan, bidaiatzea eta turismoa bera giza eskubideen erregimenean aitortutako errealitate bezala zehazten dira.

Hortaz, Hernaniko Udalak herriari egokitutako ***desira-beharren*** markoa zehaztea beharrezkoa izango du turismoaren papera zein den definitzeko. Planteamentu honen baitan aldiz, desira eta beharrak zehazteko komunitatea bera estrategiaren erdian kokatzea dakar eta hortaz ongizatearekin lotutako beharretan kokatzera. Egungo errealitate turistikoan, Donostiako gertutasunak eta Sagardotegi garaiko egoera deserosoak, bere nortasuna berresteko beharra duen lurralde bezala aurkezten da hernani eta hortaz beren behar eta desirak errealitate turistikoaren baitan bi lerroetan zehazten dira:

- Estrategia burujabetzaren proiekziorako lan esparrua bihurtu daiteke turismoa.

- Turismoa bertako ondareraren eta kolektibotasunaren adierazpenerako estrategia bezala ulertu daiteke. **Hortaz, turismoa bertako ondarean oinarritutako tokiko sentimendua indartzeko estrategia bezala definituko da.**

Planteamendu honetatik, bisitaria gonbidatu izatera pasa beharko du eta ondare kulturalaren babeserako aliatua bihurtu. Zentzu honetan bi lan lerro planteatzen dira:

1. Bisitarien kudeaketan lan egin beharko da egun. Bisitari hau gonbidatu bihurtuz (herriko elkarteen bidezko estrategia).
2. Komunitatea bere ondarean indartu beharko da, bisitarien kudeaketan aliatua bihurtzeko.

3. Autoeraldaketa

Ehun komunitarioak berebiziko papera izango du turismoaren alorrean autoeraldaketarako estrategia definitzeko. Ildo honetan, bisitarien beharretara egokitutako estrategiak ez du zentzu berezirik izango eta beraz bisitariei bideratutako estrategiek ez dute lekurik izango herri mailako bestelako beharrei erantzuten ez badiote.

Garrantzitsua da ikuspuntu honetan bisitarien erabakitzeko esparrua non egon daitekeen zehaztea. Burujabetza eskaintzaren baitan kokatzea proposatzen da eta berau izatea eskaintzaren oinarria.

Herritarrei dagokionean, turismoko petaloan egon daitekeen autoeraldaketa, ondarearen balioaren inguruko eremuetan aztertu behar dugu eta ezinbestekoa izango da, lanketa berezia izatea.

4. Baliabide eta prozesuen kontrola

Autoeraldaketako printzipioarekin lotutako gaia litzateke eta, hortaz, turismoaren esparruan eta ondarea oinarri duen ikuspegi batean kokatuz, kolektiboak diren beharrei erantzuteko parte hartze mekanismoak ezarri eta baliatzeko apustua litzateke.

Zentzu honetan, erakunde publikoak (edo superestrukturak) eta turismora bideratutako ehun ekonomikoaren funtzioak eta paperak ondo kokatzea garrantzitsua izango da. Gaur egungo turismo ereduan batzuen eta besteen interes eta beharretatik abiatuta, burujabetza turistikoaren planteamenduetan nola txertatzen diren diren adostea suposatuko du.

Hernanin errotutako turismo jarduerari lotutako enpresa tipologiak (enpresa txikiak eta bertakoak) baliabide eta prozesuen kontrola baldintzatzen du. Modu honetan, Hernanitik kanpoko enpresen jarduera-esparruen kontrola bereganatzea litzateke ideia.

Bestetik, natur inguruneen inguruko babeserako herri mailako talde eta estrategia zehazteko beharra egongo da.

5. Gizarte kohesioa/harremanak:

Gizarte kohesioa eta harremanak burujabetza turistikoaren planteamenduan, agente ezberdinen harreman-sare demokratiko eta lidergotza partekatu batean oinarrituta egon behar duela ulertzen da.

Ildo honetan, harremanak batez ere ehun ekonomikoarekin herritarren mesedetan lan egiteko esparruetan kokatuko litzateke.

- Turismoaren inguruko agenteen mahaia sortzea edota burujabetza estrategiaren baitan turismoa kokatzea zehaztu beharko da.

Zentzu honetan, Hernani Burujabetza estrategiaren baitan turismoak, turistak eta agente turistikoen paper berriak zehazten ditu:

Turismoa komunitate batek martxan jarritako prozesu moduan ulertzen da, bisitaria gonbidatu, harrera egin eta ostatu emanteko prozesua litzateke. Denbora mugatu baterako eta komunitatean onurak (ondarearen balioa, sarean lan egitea, ekonomikoak...) eragiteko beharra izango du beren ekintzekin.

6. Eta orain zer?

TURISMO BURUJABETZA


Turismo burujabetzaz ari garenean, bi errealitatez ari gara, batetik gonbidatuari egokitzen zaion eskaintza edo guneetan eragiteaz, eta bestetik, herritarren ongizateari egokitutako adierazpen kulturalak eraikitzeko estrategiaz ari gara. Kontzeptu honetatik, orain arteko errealitatea ulertzeko faktoreak identifikatu eta aukera berriak sortzean datza, batetik, bisitariak gonbidatu bihurtzeko herriko agenteen/elkarteen parte hartzea ezinbestekoa delako eta bestetik, edozein eskaintza edo proiektu turistikok herri mailako beharrei ez baditu estaliko ez delako egingarria izango.

Ildo honetan, egun dauden enpresa turistikoetan eragin, eskaintza propioa garatu eta ondarea indartzeko bideetan zehaztu beharko litzateke burujabetza estrategia.



HERRITARRAK

- Turismo jardueretan kokatutako erabilera-kuotak eskuratu.
- Ondare natural zein kulturalen inguruko babes eta jakintza eremuak sustatu.



UDALA

- Eskaintza burujabetza artikulatzeko bideak martxan jarri.
- Herriko ondarea balioan jartzeko moduak antolatu.

EHUN EKONOMIKOA

- Ondarearen eta kodigo etikoaren inguruko lanketa burutu.
- Monetaren erabilpena sustatu eta baliatu.

Aurrera begirako lanketak:

Hernaniko Turismo saialarekin identifikatutako ekintzak zehazten dira:

1. Burujabetza turistikoaren aktibazioa, non eta nola?	
Helburua:	Proposamen estrategikoa zabaltzea eta agenteei helaraztea.
Ekintzak:	- Marko teorikoaren planteamenduaren aurkezpena. - Burujabetza turistikorako estrategia martxan jartzeko “turismo mahaia” sortu. - Hernanin egun dagoen eskaintza turistikoa, burujabetza estrategiaren markoaren baitan kokatzen dela bermatu. - Eskaintza turistikoan tokiko monetaren erabilera sustatu.

2. Turismora bideratu lokalaren inguruko lanketa.	
Helburua:	Turismorako lokala izan nahi du, hau da, bisitariak hartatzeko gunea. Zentzu honetan erronka, herri mailako zein behar edo zein tokiko estrategiako petaloei erantzun behar dien jakin beharko da.
Ekintzak:	- Lokalaren erabilerak zeintzuk izango diren erabakitzeko foroa sustatu (gainontzeko petaloekin, herritarrekin, ehun ekonomikoarekin eta ehun komunitarioarekin batera). - Lokalaren diseinua eta erabilera-aukeren zehaztapena. - Zein zerbitzu edo ekintza bideratu daitezke bertatik? Bizikleta elektrikoak alokatzeko aukera, mugikortasun tresna bezala. Petalo bakoitzaren informazio panela, noizean behin bisitak antolatuz.

3. Aterpetxearen proiektua	
Helburua:	Jarraituko den edo ez erabaki. Zertarako aterpetxea?
Ekintzak:	- Aterpetxeak zein beharrei erantzuteko balio dezake? edo zein estrategiaren osagarri izan daiteke?

4. Sagardotegiak	
Helburua:	Sagardotegien eta txotx denboraldiaren lanketa eginez, hauen inguruan identifikatutako eta sortzen dituen herritarrenganako konnotazio negatiboei irtenbidea bilatzeko ahaleginetan, hauen papera eta bertakoenganako kohesioa eta eskaintza indartzeko estrategia bultzatzea izango da helburua.
Ekintzak:	- Eskaintza burujabea sortzeko aukerak aztertu. - Sagardotegiekin erreserba-aukeren bideak eta moduak aztertu. - Sagardotegi publikoa. - Tokiko monetaren erabilera sustatu.

5. Ereñotzuko Eko-museoa (Urumea Arnastu)	
Helburua:	Ekomuseoaren bidean pausoak eman beharko dira.
Ekintzak:	- Prozesuarekin lagundu



7. Burujabetzaren bidean, nazioartean aipagarriak izan daitezkeen zenbait alternatiba.


Burujabetza bera eredu ezberdinetan azaleratu daitekeen kontzeptua dela ulertzen da, horregatik, atal honetan, bidean kokatu daitezkeen zenbait alternatiba edo ideia azalduko dira burujabetzaren esparruan. Ondorengo lerroetan, beste lurralde batzuetan martxan jarri diren zenbait eredu turistiko eta alternatiba ezberdinei buruz hitz egingo da. Aldi berean, burujabetzaren zein aspekturekin lotu ahal daitezken ere aztertuko da.

A) BARNE TURISMOA GRANADAN, NIRCARAGUA.

UCA Tierra y Aguas Kooperatibak, turismo programa bat diseinatu zuen, non nekazal kooperatiba txikiekin elkarlanean eta Zubiak Eginez GKEaren laguntza tekniko eta finantziarioaren bitartez, zenbait aterpetxe eraiki eta zerbitzu eskaintza osatu bat diseinatu zuten: mendi-ibilbideak, zaldi-ibilaldiak, bizikletaz irteera eta abar. Guztiak inguruko biztanleek sustatuta eta hauek jarduera nagusiaren alternatiba gisa.

Oinarrizko helburua turisten eta bertakoen beharrak asetzea, beti ere kultura-osotasunari, prozesu ekologikoei, aniztasun biologikoari eta harrera-eskualdeen funtsezko bizi-euskarri-sistemei errespetu handiena bilatuz.

BURUJABETZAREN ZEIN ASPEKTURI LOTZEN ZAIO?



B) KUNA YALA: AUTONOMIA ETA TURISMOA

Masifikazio arazoak zirela eta, Kuna herriak estrategia ezberdinak jarri ditu martxan hauen autonomía lurraldean denfendatu ahal izateko. Bi izan ziren planifikatu eta ezarri dituzten estrategiak: alde batetik inbertsionista kanpotarrak kanporatu kapital handiko proiektuek

irlaren administrazioan iritzi eta erabakitzeko ahalmenik izan ez zezaten eta bestetik turismo eredu propio eta autonomoa garatzeko berezko araudi baten zehazpena.

Turismo garapenerako planteatu zen eredua autonomia printzipioan oinarritzen da. 1996. urtean, Kuna Yala Turismo Estatutu bat sartu zen Kuna Oinarrizko Legean. Estatutu horretan, bertako lursailak kanpotarrei saltzearen debekua edota turismo jarduera guztien ustiapena herritarren esku egotea bezalako arauak definitzen dira. Estatutu honen sortzeak, turismoak ingurumenarenganako duen impaktua ahalik eta baxuena izatea du helburu nagusia.

BURUJABETZAN ZEIN ASPEKTURI LOTZEN ZAIO?



C) BIDEZKO MERKATARITZAKO TURISMOA *("Turismo de comercio justo")*

Bidezko Merkataritza Turismoa irabazi-asmorik gabeko enpresa bat da. Sareko plataforma bat osatzen dute, bertako negozioei merkaturatze prozesuan laguntza ematen diena eta Bidezko Merkataritzako Turismoaren 6 printzipioekin eta turismo arduratsuarekin bat egiten duten praktikak martxan jartzen laguntzen diete, eguneroko turismo-eskaintzan txertatuta era egoki batean martxa hartu dezaten.

Turismoko balio-kate osoarekin lankidetzan lan egiten dute: helmugako mikroenpresetatik hasi eta iturri nagusietako merkatuetako tour-operadore handietaraino. Bertakoekin elkarlanean, bisitarien bidaia-esperientzietan parte hartzen duten herritarrentzat eta enprentzat turismo jarduera onuragarriak izango dela ziurtatzen dute eta natura, kultura eta ondarea babesteko helburuarekin diseinatuak izango direla ziurtatzen dute.

Bidezko Merkataritzako Turismoaren Sei Printzipio

1. Bidezko banaketa: turismo-jarduera batean parte hartzen duten guztiek diru-sarreren zati justua lortu beharko lukete, jarduerari egindako ekarpenaren proportzioan.

2. Bidezko iritzia: turismo-jarduera batean parte hartzen duten parte-hartzaile guztiek eskubidea eta aukera izan behar dute haiei dagozkien erabakietan parte hartzeko.
3. Errespetua: anfitrioiek zein bisitariek giza eskubideak, kultura eta ingurumena errespetatu behar dituzte; honek barne hartzen du:
    - Lan-baldintza eta praktika seguruak
    - Langile gazteen babesa?
    - Genero berdintasuna sustatzea
    - Arau soziokulturalen ulermena eta tolerantzia
    - Uraren eta energiaren kontsumoa murriztea, baita hondakinak murriztu, berrerabili eta birziklatzea ere.
    - Biodibertsitatearen eta natur baliabideen kontserbazioa
    - GIB/HIESari buruzko kontzientziazioa

4. Fidagarritasuna: bisitariei eskaintzen zaizkien zerbitzuak fidagarriak eta koherenteak izan behar dira; oinarrizko segurtasun bermatu behar da ostalari zein bisitarientzako.
5. Gardentasuna: turismo-enpresek kontuak emateko mekanismoak ezarri behar dituzte; horien artean daude:
    - Turismo-enpresen jabetza argi zehaztu behar da
    - Langileek eta gainerako parte-hartzaileek beraiei dagokien informazioa eskuratzeko aukera izan behar dute
    - Irabazien eta galeren partekatzea gardena izan behar da

6. Jasangarritasuna: turismo-enpresak iraunkorrak izaten ahalegindu behar dute; honek barne hartzen du:
    - Ezagutza areagotzea gaitasunaren bitartez
    - Eskuragarri dauden baliabideen erabilera hobetzea sarearen eta lankidetzaren bidez
    - Bideragarritasun ekonomikoa baliabideen erabilera arduratsuaren bidez
    - Bertako kontsukoa eta enpleagagarritasuna sustatzea
    - Egoera ahulean dauden ekintzaileei laguntza ematea



bizibiziki

Aholkularitza turistikoa. Turismo Iraunkorra
ideiak eta soluzioak

BIZIBIZIKI SL
Hirigunea 16
20269 Abaltzisketa (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 691 608
info@bizibiziki.com
www.bizibiziki.com
CIF.: B75016246

2022ko otsaila